



HAL
open science

Jainkoa eta jainkotiarak Oihenart-en atsotizetan

Jean Haritschelhar

► **To cite this version:**

Jean Haritschelhar. Jainkoa eta jainkotiarak Oihenart-en atsotizetan. Lapurdum, 1992, 6, pp.195-205. artxibo-00660905

HAL Id: artxibo-00660905

<https://artxiker.ccsd.cnrs.fr/artxibo-00660905>

Submitted on 18 Jan 2012

HAL is a multi-disciplinary open access archive for the deposit and dissemination of scientific research documents, whether they are published or not. The documents may come from teaching and research institutions in France or abroad, or from public or private research centers.

L'archive ouverte pluridisciplinaire **HAL**, est destinée au dépôt et à la diffusion de documents scientifiques de niveau recherche, publiés ou non, émanant des établissements d'enseignement et de recherche français ou étrangers, des laboratoires publics ou privés.

JAINKOA ETA JAINKOTIARRAK OIHENART-EN ATSOTITZETAN

Jean HARITSCHELHAR

*Luzatzez geroti gerora egitekoak
ardiesten du nehor herioak*

(En remettant les affaires de jour à autre, la mort nous surprend)

Oihenarten 527. atsotitza

Aspaldiko gaia da Oihenart-ek bildutako 527. atsotitzak derasana. Honen oihartzuna entzun daiteke Axular-ek aipatzen dituelarik Saran edo bertze non-bait, zer nahi gisaz «euskaldunik baizen ez zen lekuan», egiten ziren apezten arteko bilkurak. Gai garrantzitsua, bereziki XVII. mendearen hasieran protestantismoaren uhaina gauditua zelarik. Gai horretaz liburu oso bat behar zela euskaraz idatzi zioten orduan, «euskararik baizen etziakitenentzat». Irakurtzaileari mintzo zaiolarik hona zer dioen Axular-ek:

«Egun batez, konpainia on batea, euskaldunik baizen etzen lekhuana nengoe-la, ekharri zuen solhasak, izan zen perpausa, etzuela deusek ere hanbat kalte egiten arimako eta ez gorputzeko ere nola egitekoen geroko utzteak egunetik egunera biharretik biharrera luzatzea. Eta on zatekeiela, gauza hunetaz liburu baten, euskaraz, guztiz ere euskararik baizen etziakitenentzat, egitea: eta hartan gero dioenak bego dioela erakustea».

Bi perpaus horietan datza liburu osoaren mamia, tituluak ere dakarrena: «Gero, bi partetan partitua. Lehenbizikoan emaitenda, aditzera, zenbat kalte egiten duen, luzamendutan ibiltzeak, egitekoen geroko utzteak». Eta lehen kapituluaren hastapenean irakur daiteke: «Gero. Hasten da gerotik gerora dabilanaz egiten den liburuaren lehen partea».

Hartzen ditugularik tituluak konturatzen gara «gerotik gerora» formula errepikatzen duela nasaiki Axular-ek, horrek salatzen duela delako erran hori osoki sartua zela jendeen artean.

Aspaldiko gaia erran dugu. Egia da Bibliatik datorrela. Hala aitortzen du Axular-ek berak ezartzen duelarik Eklesiastikoa liburuak dakarrena bortzgarren kapituluan: «Ne tardes converti ad Dominum et ne differas de die in diem».

Azkenean, Jainkoarengana itzultzea eta hori lehenbailehen egitea aspaldidanik sartua zen euskaldunen gogoetan, hor ditugula lekuko, ez bakarrik Axular-en liburu famatua, baina ere Oihenart-ek bildu duen atsotitza, ahanzi gabe, nahiz Oihenart-ek ez zuen bildu, Axular-en baitan dagoen errefrau itxurako formula «Gero dioenak bego dio».

Errefrauaren itxura baino gehiago, errefrauak galdegiten dituen idazkerak osoki betetzen ditu: aditzaren errepikatzea (dioenak/dio) eta bertze bi hitzen arteko parekotasuna e-o asonantziarekin (gero/bego). Egia erran, laburpen oso ona da eta, zinez, atsotitza.

Oihenart-en 527. errefrau sarrera gisa baliatuz, goazen Jainko, Jainkotiar eta apezak aipatzen dituzten atsotizetara.

197 Gizon Jainkotiarrari Biriatu eta Donostia bardin laketgia

(A l'homme dévot, le séjour du village est aussi agréable que celui de la cité.

Donostia est le nom de la cité de Saint Sébastien en Guipuscoa et Biriatu le nom d'un village à trois ou quatre lieues de là).

Atsotiz hau zinez euskalduna da aipatzen baititu Euskal Herriko hiri eta herri bat. Bere itzulpenean Oihenart-ek, zerbait abstraktoago dakar: village/cité edo herri/hiri. Baina euskaldun batentzat zerbait erran nahi du, Biriatu baita (eta baitzen orduan) Lapurdiko herrietan ttipienetarik bat Donostia aldiz Gipuzkoako hiri nagusia. Atsotiz horretan interesgarriena da, sortu delarik, (noiz ez dakigu) ez zutela mugaren ideiarik ere eta, beraz, konpara zitezkeela hiria eta herrixka ez baitziren bat bertzetik hain urrun. Sendi dezakegu errefrau horretan ezagutua den eztabaida hiria eta herriaren artean. Bereziki XVI. mendean gai horrek ukan zuen arrakasta haundia Fray Antonio de Guevara-ren «Menosprecio de Corte y alabanza de aldea» liburuarekin, 1539-an argitaratua.

Errefrauak salatzen du ez diola gizon Jainkotiarrak ingurumenari begiratzen, pozik dagoela hirian nola herrixka batean bertze nonbait baitauka gogoia.

7 Ago Jainkoareki Jainkoa dukek hireki

(Tiens-toi avec Dieu et Dieu sera avec toi)

Aholku gisa emana da atsotitz hau. Bi zati dauzka, lehena aginterakoa, manu bat emaiten duena *Ago* aditzarekin. Bigarren zatiak, aldiz, ondorioak zer diren erakustera emaiten du, geroari buruz ari dena *dukek* aditzarekin, *ke* atzizkiak euskara zaharrean geroa markatzen zuela.

Giristinoaren filosofia agertzen da atsotitz honetan: Jainkotiar izan behar dela, Jainkoaren adixkide, nahi bada ongi bizi eta ongi hil. Ez da harritzekoa, holako atsotitz bat ager dadin erdi aroan, fededunen artean, gizarte gehiena, orduan, fededuna zelarik.

Holako atsotitzak –edo parekoak– sortu dira bertze mintzaitretan. Frantsesez aurki dezakegu,

Celuy est bien gardé qui de Dieu est gardé¹

(Adages français. Henry Estienne, *les Prémices...* 31. or. XVIe siècle)

nahiz eta ez duen frantses atsotitzak euskal atsotitzaren erran nahi berbera, Jainkoaren gerizan dagoena ongi gerizatua dela diolarik.

Espainiolez ere badago iduriko bat:

Dios nos tenga de su mano en invierno i en verano i en todo tiempo del año²

(Correas, *Vocabulario de refranes y frases proverbiales* (1627)

Dena den, Jainkoaren geriza aipatzen dute batzuk eta bertzek forma desberdinetan, agintekera baliatuz euskaraz, opa edo agiantza modua enplegatuz espainiolez, frantsesak aldiz egiaztapen hutsa aurkeztuz.

Hurbilagoa da halere Correas-ek bi modutara emaniko erretraua:

Dios delante, io tras él: el ko(n)migo, io kon el³

Dios konmigo, io kon él: el delante, tu detrás:

o él primero i io tras él⁴.

Alabaina agertzen zaigu, euskaraz bezala espainiolez kasu sozietiboa, *eki(n)* atzizkiarekin euskaraz eta *con* preposizioarekin espainiolez. Egitura berdintsua daukate beraz, nahiz espainiolez gehiago erraiten den: Jainkotiarra egoiten dela beti Jainkoaren atzetik.

255 Jainkoak, bera langile on izanagati, nahi du lankide.

(Encore bien que Dieu soit bon ouvrier, si est-ce qu'il veut qu'on l'aide.)

Jainkoa eta Jainkotiarraren harremanak aipatuak dira hemen. Jainkoak ez dezake deus egin gizonaren laguntzarik gabe. Gizonak, Jainkoak kreatua haren itxurara, lankide izan behar du Jainkoaren nahiaren egiteko. Bibliatik dator ideia hori diolarik; «Jainko Jaunak hartu izan zuen beraz gizona eta ezarri gozozko pharabisuan, hura lan eta zain zezantzat» (*Etorxia*, II, 15, Duvoisin-en itzulpena).

¹ Le Roux de Lincy, *Le livre des Proverbes français*, Paris, Paulin, 1842, 13. or.

² Hemen erabiltzen dugu Louis Combet-en edizioa: Institut d'études ibériques et ibéro-américaines de l'Université de Bordeaux 1967, 326. or. Gonzalo Correas-en ortografia atxiki duelarik Louis Combet-ek

³ Combet Louis, *obr. aip.*, 316. or.

⁴ Combet Louis, *obr. aip.*, 327. or.

«Hura lant eta zain dezantzat». Lankide gisa agertzen zen gizona eta denbora berean Jainkoaren zerbitzari. Geroxago fruitu debekatu hartarik jan zutelarik Adan eta Eba-k eta Jainkoak kasatu zituelarik parabisutik, orduan ere errana izan da: «Eta Jainko Jaunak igorri zuen gozozko pharabisutik, lant zezantzat lurra zeintarik atheratua izan baitzen». (Etorkia, II,23). Lur lantzale eta lur zaintzale da gizona, nekean ala zorionean Jainkoaren xedea edo nahiaren egiteko.

256 *Jainkoari otoi eginez eta beharrari eginez*

(II faut gagner Dieu à force de le prier et pourvoir à la nécessité à force de travailler).

Paralelismo hutsean egina den atsotiz honek (Jainkoari/beharrari eta otoi eginez/eginez) dauka bi ekintzak behar direla bete. Jainkoaren laguntza edo begi ona ardiesten da otoi (otoi ziberotarrez) eginez eta nahi bada bizia irabazi behar da lanean arizan. Biak elgarrekin doatzi ez bat bertzea gabe.

Holako errefrauk —edo bederen idurikoak— aurkitzen dira, bai frantsesez, bai espainiolez, hala nola.

*Aide-toi, le ciel t'aidera*⁵

(Proverbes communs. XVe siècle)

*Dios dixo: «Aiúdate, ke io te aiudaré»*⁶.

Itxura berekoak dira hiru atsotitzak egitura bera baliatuz (aide/aidera aiúdate/aiudaré) baina euskaldunak parekatzen ditu Jainkoa eta beharra. «Otoi eginez» laguntza eskatzen dio Jainkoari ahanzi gabe lankide dela eta, beraz, behar diola «beharrari egin». Espainiolari aldiz Jainkoak manatzen dio; «Dios dixo» egin dezan berea lehenik eta gero ukanen duela laguntza. Frantsesak bere burua bultzatzen du lanerako (Aide-toi) eta bertzalde zerutik etorriko zaio laguntza.

635 *Jainkoak didala behazale bezala adizale.*

(Dieu me doint de gens qui m'entendent aussi bien que de ceux qui m'écotent)

Frantses zaharrean «doint» delakoa eman aditzaren subjuntiboa da, erran nahi baita euskaraz bezala opa edo agiantzako forma salatzen duela.

Didala-ren erroa *i* da. Lafon-ek bere tesian⁷ eman-en parekoa dela dio kapitulutxo baten titulua delarik: «Eman et racines supplétives: rau-, i-et -ngu-». Harentzat *i* da *gi*-ren laburpena. Nik daukat *i* hori *in*-etik datorrela eta hau dela

⁵ Le Roux de Lincy, *obr. aip.*, 12. or. Dio aurki daitekeela atsotitza Rabelais-en II. liburuan, 22. kapitulan edo La Fontaine-en XVIII. alegian VI. liburuan.

⁶ Combet Louis, *obr. aip.*, 326. or.

⁷ Lafon René, *Le système du verbe basque au XVIe siècle* bigarren argitaraldia. Elkar, Baiona, 1980, 228. or.

egin-en forma laburtua. Baigorri*n in* baliatzen dugu *egin*-en ordez normalki eta eguneroko hizkuntzan *egin*-ek dauka *eman*-en erran nahia. Lafitte-k aztertzen du *in* forma: «Ajoutons qu'à l'impératif ce verbe signifie *donner* ce qui n'a rien d'étonnant puisque l'on dit parfaitement: *pétentak egin diozka*, il lui a donné (litt: fait) des boucles d'oreilles». Aipatzen ditu gero etsenplu ezagutuak: *iguzu egun gure eguneko ogia* edo *Jainkoak dizula egun on*⁸.

Horiek hola, errefrauak aurkatzen ditu *behazale* eta *adizale* hitzak. Lehenak aipatzen du beha dagoen jendea, entzuten ari dena, bigarrenak ez du bakarrik aipatzen entzulea, entzulea baita fisikoki entzuten duena, bainan adizalea, bere adimenduan kokatzen duela entzunikakoa. Aditzen duenak du entzuten, ulertzen, konprenitzen.

636 *Jainkoagana ukenago duena da zordunago*

(Qui plus a receu du bien de Dieu luy est plus redevable)

Hemen ere anitz atsotitzetan bezala *ukenago* eta *zordunago* parekatzen dira. Zonbat ukan eta hanbat zordun eta gero eta gehiago hartzen duena Jainkoaganik, gero eta zordunago agertzen da. Jainkoa ona dela sendi dezakegu baina emaitzek zorrak sortzen dituzte. Atsotiz honen idurikoa aurkitzen dugu frantses paremiologian:

*A qui Dieu plus a donné
Plus est à lui obligé?*

(Proverbes communs. XV^e siècle)

Diferentzia ttipi bat halere frantses eta euskal atsotitzen artean: frantsesak *eman* aditza dauka eta beraz Jainkoaren emaitza da, euskaldunak aldiz *ukan* aditza eta orduan giristinoaren ikuspegia da, ukaitza delakotz aipatua.

254 *Jainkoa luzakor bada ere, ezta ahanzkor*

(Encore bien que Dieu soit lent pour punir le pécheur si est ce qu'il n'est pas oublieux).

Hemen datza euskaldun giristino gehienien filosofia, azken jujamenduarena, hain ezaguna eliza katolikoan. Erdi aroko gaia da, egun batez jujatuak izanen gara eta Jainkoak ezarriko dituela eskuinean dohatsuak, ezkerrean dohakabeak. Euskal literaturaren lehen liburuan irakur dezakegu *Judicio generala* deitzen den olerkia, Etxepareren *Doctrina Christiana* delakoan sartzen dena. Hor agertzen zaigu Jainko juje ikaragarria lur-ikaretan etortzen dena:

Bekhatorer eginen du arrangura handirik

haren hitzak ezarriren oro erdiraturik.

⁸ Lafitte Pierre, *Grammaire basque*, Amis du Musée Basque, Ikas, Bayonne, 1962, 329. or.

⁹ Le Roux de Lincy, *obr. aip.*, 12. or.

Bakoitzaren bizia ikertuko du deus ahanzi gabe, obra onak gaixtakeriak bezala. Halere, dirudienez, gaizki eginak zeuzkan gogoan atsotitz egileak edo bederen Oihenart-ek bildu zuelarik, itzulpenak erakusten duen bezala (lent pour punir le pécheur, bekatorearen zigortzeko luzakor).

Erran nahi bertsukoak dira segidan emaiten ditudan frantses atsotitzak:

Dieu n'oublie pas les siens.

(Gabriel Meurier, Trésor des sentences, XVIe siècle)

Dieu qui est juste payera selon que chacun fera¹⁰.

(Adages français XVIe siècle)

662 *Othoi sainduari deraunsano ekaitzari*

(Il prie le saint tandis qu'il y a orage).

Erauntsi aditza nor nori nork formetan agertzen da beti Lafon-ek dioen bezala¹¹. Hortakotz segidan dauka datiboa (ekaitzari). Atsotitz honek oroitarazten du euskaldunen arteko ohidura zahar bat. Ekaitzak jotzen duelarik ximistak eta ortzantzarekin beldurtzen da jendea eta orduan otoitzean sartzen da, galdeginenez saindu bati edo bertzeari urrunt dezan ekaitza. Euskaldunen Jainko zaharra Urtzi deitzen zen, ortzia edo ortzantzaren Jainkoa, Erromanoek Jovis zuten bezala.

Laborariek, bereziki, otoitz egiten zuten ekaitza agertzen zenean gal beldurrez. Herri eta herrixka gehienetan kurutzeak eta kaperak eraikiak dira, batzu mendi kaskoetan, horietarik otoitz egiten baita proosionetan joanez.

Deraunsano-ren *no* atzizkiak denbora mugatua adierazten du erran nahi baita ekaitza diraueno otoitz egiten dela, baina ortzadarrak ekaitzaren bururapena erakusten duelarik uzten direla otoitzak eta ahanzten dela beldurra.

663 *Othoitzen eztakiena Jainkoari berraio itsasoari.*

(Celuy qui ne sçait pas prier Dieu, qu'il s'adone à la mer pour l'apprendre).

Jarraiki, aditz trinkoa, agintekeran dugu atsotiz honetan *berraio* formarekin. (Jarraik bekio itsasoari). Arrantzaleen edo itsasturien arteko errefrau daiteke. Itsasoa marruman ari delarik, ekaitzak jotzen duelarik, ontzia dabilala harat eta hunak uhainen menpean, beldurrik daude mariñelak eta orduan Jainkoarengana itzultzen dira galdeginenez salbamendua. Fedegabeak ere ikas dezake orduan Jainkoaren otoizten.

¹⁰ Le Roux de Lincy, *obr. aip.*, 11. or.

¹¹ Lafon René, *obr. aip.*, 276. or. *Erauntsi* n'a que des formes tripersonnelles; il sert à exprimer que des coups sont portés par quelqu'un ou quelque chose à un autre être ou objet.

662. eta 663. atsotizek badute holako ahaidetasuna: gizonaren beldurra naturalezaren aintzinean, izan dadien ekaitza, izan dadien itsaso ikaragarria. Beldur delarik giristinoak otoitz egiten du eta fedegabea Jainkoarengana bihurtzen da. Bi atsotitz horiekin nekazarien eta itsasturien munduan gaude.

131 *Elizaren hurrenena aldarearen urrunena*

(Le plus proche de l'église est le plus éloigné de l'autel)

Oso simetrikoa da atsotitz hau: bi genitibo (elizaren, aldarearen) eta bi superlatibo erlatibo (*en* atzizkiarekin) hitz joko bat eginez *hurren* eta *urrun*-en artean aurkaritza baliatuz bokal bat bakarrik desberdin izanez.

Atsotitz hori maiz erabilia da Euskal Herrian ikusten delarik urrun bizi den jendea tenorez etortzen dela elizara meza entzuteko, hurbil bizi direnak aldiz berant sartzen direla elizan, jadanik meza hasia delarik eta orduan eliza zolan gelditzen direla aldaretik urrun.

Erran nahi ote du atsotitzak eliza ondoan bizi direnak Jainkoarengatik urrun bizi direla, ez direla sinesdunak? Holako zerbait dio atsotitz frantses batek:

*Qui est près l'église est loing de Dieu*¹²

(Proverbes communs goth. XVe siècle).

Jainkoa aipatzen du eta ez aldarea euskal atsotitzean bezala, nahiz *aldarea* hitzak ukan dezazkeen bi erran nahi, lehena konkretoa eta bigarrena abstraktoa, frantsesez ere, adibidez: *l'alliance du trône et de l'autel*.

29 *Apezak azken hitza bere.*

(Le prestre presche enfin pour soi)

Aldi bat baino gehiagotan jendeen ahoetan entzuten den erretraua da eta gehienetan uste dute apezak dela azkenik mintzatzen, nehork ez diola erantzun behar, erraiten dituenak behar direla sinetsi. Hobeki aztertzen delarik atsotitza, kontutan hartu behar da bukaeran dagoen genitiboa: *bere*. Egia erran itxuraz genitiboa balinbada destinatiboa da errealki: beretzat dela ulertuz.

Hizkuntza mintzatuan, egunerokoan, aurki daiteke genitiboa destinatiboaren orde. Adibidez: *Hau nire, hori zure* eta Baigorriin entzuten da norbaitek uzten dituelarik konpainian dauden jendeak erraiten dutela: *Adio ziin*. (*Adio zuen* = *Adio zuentzat*)

Etxahunen bertsoetan irakur daitezke holakoak: «Ahaide delezius huntan» deitzen den kantuan hona zer aholku ematen dion alabari:

¹² Le Roux de Lincy, *obr. aip.*, 15. or.

«Adio dereñat erraiten ene alhaba bakhotxa;
Etxeki-ezan familian orain artinoko kundüta,
küñat küñater eman beriak, haurrer Jinkuaren kreinta,
Senharraren hun izan eta zaharraguak errespeta¹³».

Senharraren hun izan: Ez da dudarik ulertu behar dela senharrarentako edo senharrarentzat. Bi aldiz aurkitzen dugu kasu berbera Eihartxe eta Miñau-en kantuan.

«Hik badük abis hunik emazte lagüen
Nik ere badiñat gizun ezkuntzekuen¹⁴».

Hor ere argi eta garbi dago lagüen(tzat) ezkuntzekuen(tzat) konprenitu behar dela.

Beraz, bere alde jokutzen da apeza, ez du bere burua ahanzten, azken hitzetan badaki galdatzen.

529 *Nol'apezaren kantatzea, hala bereterraren inhardestea.*

(Comme chante le chapelain, ainsi respond le Clerc ou le sacristain).

Nola... hala, genitiboa eta aditz izenarekin egina da atsotitza. Hemen agertzen da apezaren nausitasuna, harek errana bertze batek errepikatzen duela. Nausiaren oihuari ihardesten dio mutilaren oihartzunak. Apeza, bereterra: bikote horretan datza atsotitzaren umorea. Euskara zaharrean *bereter*-ek apezaren erran nahia zuen. Hor daukagu Aymeri Picaud-en lekukotasuna, emaiten duen euskal hitzen zerrendan agertzen baita *bereter*. Hasten da «*Deum vocant Urcia...* eta urrunago dakar *presbiterum belaterra*». *Presbiterum*-etik dator *bereter* eta beraz *sacerdote*-ren erran nahia du. Mitxelenak dioen bezala presbyter-etik heldu dira it *prete*, occit, *preveire*, fr. ant, *provoire*, cat. *prevere*. *Clérigo* balinbazen erdi aroan, geroztik aldatu da erran nahia eta orai *monaguillo* edo *sacristán* dauka¹⁵. Hain zuzen bi izen horiek enplegatzen ditu Oihenart-ek bere itzulpenean: *clerc*, *sacristain*.

Frantses paremiologian aurkitzen da holako atsotitza

*Comme chante le chapelain
Ainsy répond le sacristain*¹⁶

(Gabriel Meurier, Trésor des sentences, XVIe siècle)

Idea berbera, hitzak berberak, egitura berbera. Zein sortu zen lehen?

¹³ Haritschelhar Jean, *L'oeuvre poétique de Pierre Topet-Etchahun*, Bilbao, 1970, 244. or.

¹⁴ Haritschelhar Jean, *obr. aip.*, 282. or.

¹⁵ Agud Manuel, Tovar Antonio, «Materiales para un Diccionario etimológico de la lengua vasca», *Anuario del Seminario de Filología vasca «Julio de Urquijo» (ASJU)* XXIII-3, 1989, 919. or.

¹⁶ Le Roux de Lincy, *obr. aip.*, 4. or.

Laburragoa, bainan ideia berekoa da

Tel chapelain, tel sacristain.

(Gabriel Meurier, Trésor des sentences, XVIa siècle)

366 *On-goseak gizon bat hilik ihes zegin eliza barnera eta ezta geroztik hantik atera*

(L'avarice ayant tué un homme se réfugia dans l'Eglise et elle n'en est pas sortie depuis)

Elizaren eta eliz-gizonaren salaketa bortitza. Dirudienez erdi aroko atsotitza «aoriste» deitu aditz denbora baliatzen baitu: *ihes zegin = ihes egin zuen*. On-gosea, erran nahi baita diru gosea, ontasun gosea, Oihenart-ek «avarice» itzultzen du. Uste dut zerbait gehiago dela «avarice» baino, zikoizkeria baino. On-goseak erakusten du diruaren indarra, dirua bilakatu dela Jainko on-gosea daukanarentzat. Elizaren aberastasuna kritikatu da eta «Apezak azken hitza bere» atsotitzean holako zerbait usna zitekeen.

Apezaren zikoizkeria agertzen da frantses atsotitz batzuetan. Hala nola:

Avarisce de provoivre

frantses zaharrean provoivre apezeta baita.

(Dit de l'Apostole. XIIIe siècle)

C'est un pauvre prestre s'il n'a point d'argent caché¹⁷

(Recueil de Gruther)

Bortitzagoa da, halere, euskal erretraua aipatzen baitu gizon baten hiltzea eta, dakigun bezala, elizak orduan aterbe sakratuak ziren eta gaiztaginak elizan sartzen zirelarik, lasai bizi zitezkeen ez baitzituen polizak hartzen ahal.

716 *Guk ordena Jainkoak zati.*

Mitxelena 1967-an argitaratu dituenetan agertzen da atsotitz hau¹⁸. Txillardegik «Oihenart-en atsotitzak eta neurtitzak» argitaratu zituelarik 1971-an dio atsotitzaren esplikatzeke: Guk ordena Jainkoak desegin¹⁹. Ez naiz batere ados haren proposamenarekin. Zati aditzak erran nahi du puskatu, bainan nere ustez ebaki edo erabaki erran nahi du ere. Lhande-ren hiztegiak hauxe dakar: 3° donner en partage, déterminer. Alfonsa Rodriguez-en adibide bat dakar: oro xedatzen edo zathitzen. (Dieu) détermine et fait la part de toute chose. Euskaraz behar balinbada itzuli «détermine», *ebaki* edo *erabaki* itzuli behar da. (frantsesez *disposer*, espainiolez *disponer*.)

¹⁷ Le Roux de Lincy, *obr. aip.*, 27. or.

¹⁸ A.S.J.U., Donostia, 1967, 16. or.

¹⁹ Txillardegik, *Oihenarten atsotitzak eta neurtitzak*, Donostia, 1971, 110. or.

Hor ditugu frantses eta espainiol errefrauak

*Ce que l'homme propose Dieu autrement dispose*²⁰

(Adages français, XVIe siècle)

El hombre propone y Dios dispone.

Abstraktoagoak dira azken errefrau hauek. Euskaraz *guk* izenordea konkretogoia da, *guk* bere baitan baitauka *ni* eta beraz bakoitzak badu zer ikusirik errefrau horretan.

Mitxelenak hauxe dio: «Equivale sin duda, en líneas generales, a: «El hombre propone y Dios dispone». Literalmente parece ser: «Nosotros hacemos el testamento; Dios el reparto». No hallo *ordenatu* con este valor, pero *ordenu* «testamento» es bien conocido: cf *ordenuac* eta *testamentuac*, Axular, p. 206 etc...»

Halere *ordenatu* Lhande-en hiztegian erran nahi du «3° ordonner, donner un ordre», *manatu* beraz eta errefrauaren erran nahia da:

Guk mana Jainkoak erabaki

Orobat Oihenart-en atsotizetan hamalau dira Jainkoaz, Elizaz eta apezzez mintzo direnak. Ez da kopuru haundia konparatuz frantses eta espainiol paremiologian agertzen direnekin. Egia da ere 900-etara ez dela heltzen Oihenart-ek bildu duen guzia eta, dudarik gabe, euskal atsotiztegia aise aberatsagoa da.

Ez dut uste Jainkoaren eta Euskal Jainkotiarren arteko harremanak bereziak diren. Erdi aroko giristino gehienek ideiak dira. Hala heziak izanak ziren. Jainkoaren gerizapean edo adixkidetasunean egon behar du giristinoak izan dadien frantses, espainiol ala euskaldun. Jainkoari galda diezoke zerbait bakoitzak, egin ahalak egiten balinbaditu eta dakielarik beti zorretan izanen dela Jainkoarekin, Jainkoa dela boteretsua, haren xedeetan sartzen dela eta egun batez jujatua izanen dela. Eliza guzietan kantatzen zen «Dies irae, dies illa» hain famatua eta, dakidanez, kantatzen ez dena orai, himno horretan erakusten zela Jainkoaren itxura ikaragarria eta bekatorosen izialdura

«Quantus tremor est futurus,

Quando iudex est venturus,

Cuncta stricte discussurus».

Latinez kantatzen balinbazen Euskal Herriko elizetan euskaraz ere kantatzen zen eta kantatzen da. Hor dira lekuko ehorzketetan ematen zirenak: «Bizia labur» deitzen den kantuan hirugarren bertsuak dio:

Bizi ez deus hau utzi orduko

Hor dugu jujamendua.

Nor bederak du eman beharko

Hertsiki bere kondua:

Laster dukegu ordua!²¹

²⁰ Le Roux de Lincy, *obr. aip.*, 166. or.

²¹ *Kantikak*, Beloke, 1948, 7. or.

Joanes Etxeberri Ziburukoaren kantu batek dakar (hain zuzen XVII. mendekoa):

«Berehala juje mendekariak
Zabalduren dik suzko leizea:
Han beharko tuk tormenta guztiak
Bethi jasan, oi zorte dorpea!²²»

Ifernua idekirik dago kreatura danatuarentzat Aita Gasteluzar-ek kantatzen duen bezala eta azken jujamendua aipatzen dituzten kantuetan entzun dezakegu «Dies irae»ren oihartzuna:

«Aditzen da tronpeta lazgarria,
Ethorri da Jaunaren eguna.
Egun trixte, egun lotsagarria,
Egunetan egun handiena²³».

Kantu horiek jansenismoaren herexak dituzkete Iparraldean bereziki, XVII. mendean hedatu baitziren Jansenius-en ideiak.

Eliza eta apezak frango bortizki jujatuak izanak dira euskal errefracuetan, bainan badakigu bertze atsotiztegieta halaber gertatzen dela. Elizaren aberastasuna, apezzen zikoizkeria kritikagarria izanez, euskaldunak ere erakusten du «antitclericalismo» edo apezzen kontrato zerbait nahiz atsotizteta aurki daitezkeen zirto jostagarriak hala nola «Apezak eguerdiko mahainean»²⁴ bertze batzu gaixtoak, adibidez Oihenart-ek dakarrena: «On-goseak gizon bat hilik ihes zegin eliza barnera eta ezta geroztik hantik atera».

Nahiz atsotiztek salatzen duten herri baten zuhurtzia, jendeek, non nahi bizi diton, sendimendu bertsuak dauzkate eta berdin nonbaitik jinikako errefracua hartuko dute, herriko mintzairaren jauntzi berriez apainduko dute eta osoki bereganatuko. Bainan berek ere asma dezakete atsotizt berri bat. «Otoitzen eztakiena Jainkoari berraio itsasoari» ez daiteke sort itsasoak hunkitzen ez duen herri batean ez baitakite zer den itsasoa. Euskal Herriari ongi doakon errefracua da.

Non eta noiz sortu den atsotizt bat ez da errex jakitea. Batzu lur batean sortu dira; adibidez, «Gizon Jainkotiarrari Biriatu eta Donostia bardin laketgia». Euskal Herrikoa da eta holakoak badira jadanik aztertu ditudanak²⁵. Bertzeek, aldiz, munduko jende guzien zuhurtzia dakarte eta ez zaie hoieri emaiten ahal ez tokirik eta ez garairik, hizkuntza askotan azaltzen direlakotz, gai berak hunkituz. Atsotizt horiek denetak dira, ez dute mugarik ezagutzen, jalgi dira mundu guzira.

²² *Kantikak*, Beloke, 1948, 10. or.

²³ *Kantikak*, Beloke, 1948, 20. or.

²⁴ Elissalde Jean, *Atsotizt, Zubur-bitz eta Erran-zahar*. Baiona, 1936. 3. or.

²⁵ Haritschelhar Jean, «Euskal Herria Oihenart-en atsotizt eta errefracuetan», *Euskera*, Bilbao, 1989, 549-561. or.